

Jatorri anitzeko emakumeak biltzeko Guretzako saioak hasiko dira laster

Tolosaldea Garatzenen barruan sortutako Guretzako ekimenak emakumeak elkartzea du helburu, «esperientziak trukatzeko»; eskualdeko bost herritan egiten dute // **4**

Berrobira Krosa egingo dute larunbatean

Iazko etenaldiaren ostean, hemezortzigarrena izango da aurtengoa; adinaren arabera egongo da banatuta proba, eta izen ematea «martxa onean» doala esan dute antolatzaileek // **7**

Bonu bidezko kanpaina berria jarri dute martxan Ibarra

20 euroren truke 30 euroko balioa duten bonuak egongo dira salgai larunbatetik aurrera Zugasti lokalean; pertsona bakoitzak 20 euroko gastua egin ahalko du gehienez // **3**

Maukak lortzeko azokak izango dira larunbatean eta igandean

Tolosan Braderie azoka egingo dute 68 saltokik larunbatean, eta Zizurkilan eta Villabonan Stock azoka egingo dute, 18 saltokiren parte hartzearekin // **3**

Pello Mari Otaño bertsopaper lehiaketa abian da

Zortzigarrenez egingo dute, eta urriaren 8ra arte aurkeztu ahalko dira lanak; azaroaren 8an jakinaraziko dituzte irabazleen izenak // **4**



ATARIA

«Mila trikimailu bilatu behar izan ditugu lana aurrera ateratzeko»

IÑIGO ASENSIO KOMUNIKATZAILEA

Tokioko Olinpiar eta Paralinpiar Jokoetan euskal kirolarien jardunaren berri eman du kazetari tolosarrak; orain arte bizitu dituen Olinpiar Joko «trakets eta gogorrenak, antolakuntza eskasekoak» izan direla nabarmendu du // **2-3**



ORIA  **BEILATOKIA**
TANATORIO

Usabal Ind., 12· 20400 Tolosa
943 69 75 79
www.funerariaoria.com

«Orain arte bizi izan ditugun joko trakets eta gogorrenak izan dira»

**IÑIGO ASENSIO
KOMUNIKATZAILEA**

2020ko Tokioko Olinpiar eta Paralinpiar jokoetan aritu diren euskal kirolarien jardunari ahotsa jarri die Iñigo Asensio tolosar kazetariak; «deskontrola ikaragarria zen eta buruhauste ugari izan ditugu», aitortu du



ATARIA

J. Artutxa Dorronsoro Tolosa

50 eguneko egonaldia egin du Tokion (Japonia) Iñigo Asensio (Tolosa, 1985) kazetariak, Bat Basque Team proiektuarentzat lanean. «Intentsitate handiko lanaldia izan da, eta oraindik neke fisiko eta mental apur bat dut», esan du, itzuli eta astebetara. **Olinpiar Joko berriak, hiri berria eta esperientzia berria. Nola deskribatuko zenituzke aurtengo Tokioko Jokoak?** Kirolarien eta euren jardunari erreparatu gero, beti bezain zoragarriak. Euskal partaideei, beraien lorpenei, eta noski, kontatzaera egokitu zaigunari dagokienez ere, oso onak. Lan egiteko, ordea, orain arte bizi izan ditugun traketsenak eta gogorrenak, antolakuntza eskasekoak. Ezustean harrapatu gaitu, eta deigarria izan da, Japonia bezalako herrialde batengandik beste zerbait espero dezakezulako, baina aitortu behar dut aurreikuspen asko hautsi zaizkidala: antolakuntza eraginkorrena, garraio sistema aurreratuarena, gastronomia bikainarena...

Kazetariak, gainera, arazoak izan zenituzten jokoak hasi aurreko egunetan, ezta?

Burbuilatik atera ezinik ibili gara, ondoko supermerkatuan ontzi arinetan datozen jakiak erosi eta hotelean bertan jaten, inguruan turista japoniarrak lasai asko igarotzen ziren bitarte-

an. Espero eta uler genezakeen, COVID-19aren eraginez, neurri berezien kontrola are handiagoa izatea, baina horrek ere ez du batero ondo funtzionatu; zutabe ezegonkorretan oinarrituta zegoen antolakuntza.

Buruko min eta buruhauste ugari izan ditugu, eta inoiz baino lan administratibo gehiago egin behar izan dugu, bertara iritsi eta guztia ia alperrik zela ohartzeko. Deskontrola ikaragarria zen; hankarik eta bururik ez zuen zerbait ari zen gertatzen. Burbuila zelako hura ez zen betetzen, eta lau aldiz aldatu gintuzten hotelez; testak egiten ez zituztenak ere ezagutu ditugu. Eta ez zen ezer gertatzen.

Espainiar irrati kate bateko kazetari batek, berrogeialdia egin behar izan zuen hotelean, berak hartu ez zuen hegaldi batean lehendik hartuta zuen eserlekua eremuan bidaiari batek positibo eman zuelako. Berak erreklamatu arren, ez zen nahikoa zuzentasun edo inteligentzia egon akats hori onartu eta egoera konpontzeko, besteak beste, kazetari horren lana jokoan zegoenean. Guzti horri, kazetariak gerora izandako estres egoera gaineratu behar zaio.

Erabat aldakorra izan da lana, eta oso luzea egin zaigu. Metroan 25 minutuetan egin zenezakeen bidaia bat, bi ordutan egiten genuen olinpiar batzordeak ezarritako garraioetan, eta bidaiaren

erdia eguzki azpian, 37 gradutan, gerizperik gabe. Txirrindularitzako probak, Bat Formulako zirkuitu batean amaitzen ziren, eta Joko Paralinpikoetan, sekulako euri jasa bota zuen. Lurrean hiru zentimetroaraino heltzen zen ura, eta elkarrizketa gunean, ez zegoen aterperik.

Orain, askok esaten didate kontatzen ari naizena ez dutela inon ikusi edo entzun, eta egia da, ez delako inoiz albistegietan aterako. Baina, kazetariok ez dugu erraztasun handirik izan, eta mila trikimailu eta modu ezberdin aurkitu behar izan ditugu gure lana aurrera ateratzeko. **Zure egitekoa, euskal kirolarien ibilbidea jarraitzea izan da. Jada baduzu esperientzia, gainera. Hala ere, nola aritu zara aurtun?**

Inprobisatzaera behartu gaituzten egunak izan dira. Aurrez, egutegi bat eta agenda bat genituen, baina hankaz gora joan zen guztia. Kirolariekin egotea eta elkarrizketak egitea oso konplexua zen. Ondorioz, enpatiarako, ulermenerako eta erreakzioarako gaitasun handirik gabeko antolakuntza baten aurrean geundena sententzia izan dugu. **Nola baloratuko zenituzke Tokion euskal kirolariak egindako lana eta lortutako emaitzak?**

Parte hartzeari eta lorpenei dagokienez, marka guztiak ondu dira. Momentu oso politak bizi

ahal izan ditugu, akaso, Maialen Chourrautena izan da nabarmenena; Julen Aginagaldereña ere hunkigarria izan zen. Une triste samarrak bizitzea ere egokitu zaigu, asko, dominetatik oso geratu geratu direlako. Hori dute

«Lurrean hiru zentimetroaraino heltzen zen ura, eta elkarrizketa gunean, ez zegoen aterperik»

«Kazetari modura, aurtun ez dut gozatu izanaren sentsazioarik, baina badakit gerora harro egongo naizela»

Olinpiar eta Paralinpiar jokoei, txanponaren bi aldeak, gozoa eta gazia, dastatzea egokitzen dela.

Nire kasuan, kazetari bezala, aurtun ez dut gozatu izanaren sentsazioarik, baina badakit, aste batzuk igarotakoan, atzera begiratu eta harrotasun hori geratuko zaidala: Han ere izan ginen, eta hori ere kontatu genuen. Nahiz eta polita izan dela esateko gaitasunik oraindik ez izan, eta asko sufritu arren, aste batzuetara, une historikoak bizi genituela gogoratuko dugu. **Berrikuntza nagusienetakoa, agian, harmailetan publikorik ez izatea izan da. Zein sentsazio izan zenituen?**

Oso arraroa da zeinen azkar ohi-tu garen egoera horretara. Nola-

bait, estadioetako hizlarien lanari eta musikari esker, ia ez naiz ohartu ere egin. Lehen egunetan, akaso, apur bat ezohikoa irudituko zitzaigun, baina gero, zerbait arrunta izan zen. Oso berezia izan da, kirolariekin harremana genuen bakarrak, prestatzaileez gain, kazetariak ginelako; boluntario talde oso handia ere izaten zen eremu horietan. Hautatzaile eta parte hartzaileen txalo eta oihuak izaten ziren tarteak, eta kazetariok ere laguntzen genuen zeregin horretan. **Beste berrikuntza bat, jokoei estreinatuta eta azken aldiz praktikatu diren kirol modalitateen izan da. Zein iritzi duzu honen inguruan?**

Betiko eztabaida da, eta oso zaila da olinpiar bezala zein kirol izendatu eta zein ez zehaztea. Nire kasuan, ez dut barrutik bizi, gure kirolari zuzen-zuzenean eragiten dion arte: surfean partaide ugari izan genitzakeen eta bakarra izan dugu, karatea desagertzeak ez dirudi kalte handirik eragiten dionik... Pena handia sentituko dugu euskal ordezkari ugari dituen modalitateen bat desagertzen denean. Batez ere, kirolarien ibilbide eta amesekin jotatzen den neurrian da arraroa, baina bistakoa da olinpiar izatera igarotzen diren kirolak erabat iraultzen direla.

Zoritxarrez, Olinpiar Jokoen errealitateak askotariko interesen eragina du. Erabaki horien

atzean, beraz, ikuskizun gosea, errentagarritasuna, eta ziur, eza-gutzen ez ditugun faktore gehia-go ere izango dira; irizpide objek-tiboetatik harago doazen eraba-kiak dira. Hala ere, modalitate egonkorragoak izatea eskertuko litzatekeela iruditzen zait.

Izan al duzu Tokioko Olinpiar parketika atera eta hiria bisita-tzeko aukerarik?

Olinpiar eta Paralinpiar jokoen artean 12 bat egun izan genituen,

«**Olinpiar Jokoekiko oposizioa nahiko mainstream bilakatu da aurtan, eta hori deigarria iruditu zait**»

«**Fuji mendiko igoeran, ekaitzak harrapatu gintuen; 100 kilometro orduko haize ufadak izan genituen**»

atseden hartzeko eta deskonek-tatzeko, baina zoritxarrez, egu-raldi oso desatsegina izan ge-nuen. Fuji mendia igotzeko erronka jarri genion geure bu-ruari, eta baldintza klimatiko oso gogorretan abiatu ginen. Ekai-tzak harrapatu gintuen eta 100 kilometro orduko haize ufadak izan genituen. Lagun askok atze-ra egin zuten, eta gutxi batzuk lortu genuen gora heltzea. Su-mendiaren kraterretik oso gertu egonda ere, ezin izan genuen ikusi. Esperientzia oso polita izan zen, baina baldintzek erabat zapuztu zutena. Horrez gain, in-guruko herrietan, ur termaletan eta piraguan ibiltzeko aintzire-tan izan ginen. Batez ere mendi inguruan ibili ginen, hiritik ihes egitea erabaki genuelako.

Nolako hiria da Tokio?

Hiri interesgarria eta erakarga-rria da. Hiri berean, hiri asko dira, eta bakoitzak ezaugarri pro-pioak ditu. Hala ere, lan baldin-tza deserosoak dituzunean, asko

aldatzen da edozein hiri bizitze-ko modua, eta Tokio nahiko gri-sa bizi izan dut bidaia honetan.

Londresko paralinpiar jokoe-tan hasi zen zure ibilbidea.

Urte guzti hauetan, zertan al-datu dira jokoak?

Herrialde bakoitzak eta bere kul-turak eragin handia du Olinpiar Jokoengan, baita horietan modu batera edo bestera parte hartzen dugunongan ere. Londreskoak joko britainiarrak izan ziren; Rio de Janeirokoak, berriaz, latinoa-merikarrak; eta Pyeongchango-ak eta Tokiokoak, asiarrak. Hor-taz, Rio de Janeirotik Tokiora guztia aldatu da, bi kulturak eta bi hirietako biztanleen izaerak elkarrengandik kontrajarriak di-relako. Baina bitxia da, bi he-rrialdeek harreman eta eragin historiko handia dutelako. Kasu honetan, kultura jakin batekin egin dugu topo, eta asiarrak bai-no, oso japoniarrak izan direla esatera ausartuko nintzake.

Bada gauza bat deigarria irudi-tu zaidana: jokoekiko oposizioa nahikoa *mainstream* bilakatu da. Ez dugu ahaztu behar, jokoak egin diren herrialde guztietan, gizartearen zati bat ekitaldiaren aurka agertu dela. Stratford au-zoko (AEB) txiroei edo Brasilen favelak desegin eta etxerik gabe utzi zituzten milaka lagunei ez zitzaaien ahotsik eman, inori ez zitzaiolako interesatzen. Japo-nian, ordea, bazen kirol agenda-rekin lerrokatutako kritika bat, lehen lerroa hartu zuena: CO-VID-19a. Bat-batean, gizarte oso-ak pentsatu du Japonian ez zute-la jokoak ospatzerik nahi.

Hurrengo helmuga, Paris, 2024an.

Aurrez, Neguko Olinpiar Joko-koak izango dira Pekinen, aurt-en. Olinpiar zikloari errepara-tuz gero, kirolarientzat oso gertu daude Parisko jokoak. Niretzako, aldiz, ikaragarri urruti. Ziur, oso frantsesak izango direla.

20 euro ordainduta 30 gastatzeko kanpaina abiatuko dute Ibarrran

Irailaren 18an, 10:00etatik aurrera jarriko dute bonuak erosteko aukera Zugasti lokalean; pertsona fisiko bakoitzak gehienez 20 euro gastatu ahalko ditu bonuak erosten

Erredakzioa Ibarra

Ibarrrako Merkatarien Elkarteak bonu bidezko kanpaina bat jarri du martxan. Bonuak 20 euroan erosi eta 30 euro gastatzeko au-dera izango da. 5 euroko balioa duten 6 bonu emango zaizkio gehienez pertsona bakoitzari, eta 6 bonuak nahi den eran gas-tatu ahalko ditu kanpainan parte hartzen duten Ibarrrako komer-tzioetan.

Bonuak larunbatean, irailak 18, jarriko dituzte salgai, Euskal Herria 22 zenbakian dagoen Zu-gasti lokalean, 10:00etatik aurre-ra.

Bonuak erosteko 18 urtetik gora izatea beharrezkoa izango da; erostera doan pertsona fisiko bakoitzak, gehienez, 20 euro gas-tatu ahal izango ditu (5 euroko 6 bonu jasoko ditu), horrela, ahalik eta pertsona gehienek eskuratu ahal izango dituzte bonuak. Bo-nuak erosterakoan ezingo da txartelarekin ordaindu.

Erositako bonu hori kontsu-mitzerakoan, erosketaren zen-



Larunbatean jarriko dituzte salgai bonuak; Zugasti lokalera joan beharko da. I.S.

batekoa bonuaren zenbatekoa baino handiagoa izan beharko duela gogorarazi dute merkatar-ielkartekoek. Bonuak azaroaren 28a baino lehen kontsumitu be-harko dira.

Merkatarien elkartetik esan dutenez, herriko merkataritzan kontsumo kontzientea bultza-tzea da kanpainaren helburua, hau da, «Ibarrrako establezimien-duetan fluxua sortzeaz gain, ber-takoak eta bertakoek duten ga-rrantzia jabetzea». «Udara on-

doren hilabete hau zaila izaten da denontzat, bai psikologikoki eta baita ekonomikoki ere, lane-ra eta eskolara itzultzearekin gastu handiak sortzen dira, eta horregatik eman nahi dugu la-guntza txiki bat», gaineratu du elkartek.

INFORMAZIO GEHIAGO

Bonu kanpainan parte hartu du-ten saltokien zerrenda Ataria.eus webgunean.

Beherapenak eskuratzeko aukera, asteburuan

Ostiralean eta larunbatean Stock Azoka egingo dute Villabona eta Zizurkilen, eta Tolosan Braderie azoka egingo dute larunbatean

Erredakzioa

Datorren asteburuan eskaintza bereziak egongo dira Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkilgo kaleetan. Tolosan Braderie Azo-ka egingo dute eta Villabona eta Zizurkilen Stock Azoka egingo dute ostiralean eta larunbatean.

Oria merkatar-ielkartek anto-latu du Stock Azoka eta Villabo-na zein Zizurkilgo 18 saltokik hartuko dute parte. Lehenengo edizioak arrakasta handia izan

zuen eta merkatar-ielkartek ho-rregatik erabaki du bigarren-go azoka antolatzea. Stockean gera-tu diren salgaiak prezio onean eskainiko dituzte, produktuak agortu arte. «Saltoki txikiek gure herriari ematen dioten bizitasu-na begi bistakoa da. Bertan eros-tea hurbileko merkataritzari eta udalerr-iarri laguntzea da», esan dute Oria merkatar-ielkarteko ki-deek.

TolosandCo elkartek esan du bere aldetik, herriko 68 saltokik

hartuko dutela parte Braderie azokan. Larunbatean, hortaz, saltoki asko egun osoz egongo dira irekita. Gehienek kanpoal-dean jarriko dute postua, eta er-digunean ez dauden dendetako arduradunak San Frantzisko ibiltokian egingo dira.

INFORMAZIO GEHIAGO

Azoketan parte hartuko duten saltokien zerrendak Ataria.eus webgunean.



Asensio, Bat Formulako pistan, euritik eta haizetik babestu nahian. ATARIA

Martxan jarri dute VIII. Pello Mari Otaño bertsopaper lehiaketa

Urriaren 8ra arte aurkeztu ahal izango dira lanak eta azaroaren 8an jakinaraziko ditu saridunak Hernandorena elkarteak; aurten ez da sari banaketa ekitaldirik egingo

Erredakzioa

Hernandorena kultur elkarteak Harituz Tolosaldeko bertsozale elkargunearekin elkarlanean antolatu du VIII. Pello Mari Otaño bertsopaper lehiaketa.

Aurten ere lau mailatan bereizita egongo da lehiaketa: Tolosaldeko gelen arteko mailan, gazte-txoenean, gazteen mailan eta helduenean. Maila guztietan, gaia, neurria eta doinua libreak izango dira baina ez bertso kopurua: gelen arteko mailan, bertso-paper bakoitzak hiru bertso edo sei kopla izan ditzake. Gaztetxo-en mailan, hiru bertso edo sei kopla. Gazteen mailan, berriz, gutxienez sei bertso idatzi beharko dira eta helduenean, gutxienez zortzi. Parte hartzaile bakoitzak aurrez argitaratu gabeko nahi adina bertsopaper bidali ahal izango ditu.

EBAZPENA AZAROAREN 8AN

Bertsopaperak urriaren 8a baino lehen aurkeztu beharko dira e-posta bidez, info@hernandorena.eus helbidean eta izen emateko formularioa bete beharko da aurrez, <https://bit.ly/PMOtano> estekan sartuta. Sorta irabazleak aukeratuko dituen epaimahaia Harituz Tolosaldeko bertsozaleen elkarguneko kideek osatuko dute eta sariren bat hutsik gera liteke epaimahaiko kideek horrela erabakiz gero. Antolatzaileek



2019ko Iriarte kultur etxeko sari banaketa ekitaldiko irudia. HERNANDORENA

adierazi dutenez, gelen arteko lehen saria eskuratzen dutenek bertsolari baten bisita jasoko dute eskolan eta Tolosako bertso saiorako sarrerak banatuko zaizkie. Bigarren geratzen den geletako umek ere jasoko dituzte sarrerak. Gaztetxo-en sailean lehen saridunak 100 euro eta bigarrenak 75 eskuratuko ditu; gazteen sailean lehen saridunak 250 euro eta bigarrenak 125 euro; eta helduen atalean, lehen saridunak 500 euro eta bigarrenak 250 euro eskuratuko ditu. Gaztetxo eta gazteek ere Tolosako bertso saiorako sarrerak eskuratuko dituzte.

Lehiaketako irabazleen izenak azaroaren 8an jakinaraziko ditu Hernandorena kultur elkarteak

eta sari banaketa ekitaldia modu telematikoan egingo da osasun egoeraren ondorioz. Bertso jartzaile saridunek bideoz grabatu beharko dituzte euren sortak, eta ondoren, Hernandorena kultur elkartera bidali. Bideoak abenduaren 3an argitaratuko dira *Hernandorena.eus* web orrian eta Harituz bertsozale elkargunearen sare sozialetan, euskararen egunaren ospakizunarekin bat eginez.

Informazio guztia Hernandorena elkartearen web gunean aurki daiteke eta argibide gehiago jasotzeko 656 743 741 telefono zenbakira edo info@hernandorena.eus helbide elektronikora jo daiteke.



HIRUGARREN SARIA ARATZ ARZELUSENTZAT

Igandean Ordiziako Barrena kultur etxean banatu ziren Lazkao Txiki XXX. Bertsopaper lehiaketako sariak. Argi Berri Elkarteak eta Ordiziako Udalak antolatzen dute elkarrekin lehiaketa eta 14 eta 18 urte arteko parte hartzaileen kategorian Aratz Arzelus Aranburu amasarrak lortu du hirugarren saria Bizitzaren azterketan lanagatik. GOIERRIKO HITZA

'Bitartekari irakurle kluba' urrian jarriko dute abian

Erredakzioa Ibarra

Hirugarren urtez *Bitartekari irakurle kluba* jarriko du martxan Ibarako Udalak. Imanol Mercero Galtzagorri elkarteak kidea ariko da gidari lanetan. Ibarako haurren eta gazteen irakurzaletasuna sustatzea, euskal literaturarekiko eta idazleekiko ezagutza eta jakin-mina areagotzea, eta euskararen balioaz eta aberastasunaz jabetzea dira di-

namikarekin lortu nahi dituzten helburuak.

Solasaldietan parte hartzen dutenek, 2 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteei bideratzen zaizen literaturaz hausnartzeko aukera izango dute. Egitasmoa urrian hasiko da eta hamabost egunean behin bilduko da taldea. Saioak ordubete edo ordu eta erdi inguru iraungo du. Izena emateko udal liburutegira jo beharko da, irailaren 20tik 30era.

'Moio' lana aztertuko dute Irurako irakurle taldean

IRURA // Irailaren 22an Irurako irakurle taldean Kattalin Minek idatzitako *Moio* lana aztertuko dute. Transexualitatea eta suizidioa gurtzatu ziren Aimar Elosegiren bizitzaz eta heriotzaz idatzi du hernaniarrak. Idazlea bertan dela egingo dute saioa eta irakurletaldeairura@gmail.com -en eman beharko da izena.

Irakurketa klubetan izena emateko aukera zabaldu dute

TOLOSA // Tolosako udal liburutegiak urritik maiatzera bitartean irakurketa klubetan landuko dituzten liburuak aurkeztu ditu. Izena emateko epea zabaldu dute eta interesa dutenek liburutegira jo beharko dute horretarako. Euskarazko klubetan komikiak aztertuko dituzte, eta beste-lako lanak gaztelaniazkoan.

TOLOSALDEPEDIAKO LANTEGIA

Eguna: irailak 16
Ordua: 17:00-19:00
Lekua: Tolosako Kultur Etxea
Izena eman:



EZAGUTZA ELKARREKIN ELKARLANEAN ERAIKITZEN

TOLOSALDEPEDIA



Dantzarako doinuak interpretatuz, edozein momentu alaitzeko prest dagoen boskotea da Orkestrina Band Jazpana; larunbatean, kontzertu berezia eskainiko du, 12:00etan, Lopez Mendizabal Plazan

Inork ahaztu ezin dituen doinuak

Josu Artutxa Dorronsoro

Dantzarako musika eta oholtzarako lagunak. 2015eko uda zen, eta besterik ez zuen nahi Zigor Sagarna musikari tolosarrak, orkestra txiki bat osatzeko. Los Alegres taldeak eskaini zuen kontzertu batean izan zen Sagarna, eta bertan bururatu zitzaion ideia. Gerora, Tolosan proiektu askorekin gertatzen den moduan, parranda batean sortu zen Orkestrina Band Jazpana taldea. «Denborarekin galdutako tradizio musikala da, baina ez dugu ahaztu. Orkestra txikiak arrastoa utzi dute eta Euskal Herrian izan direnak omendu nahi ditugu», esan du.

Sagarnak berak ukebaxu akustikoa jotzen du, eta elkar ondo baino hobeto ezagutzen duten lau lagunekin osatzen du taldea: Jaione Urdanibia (soinu handia), Jon Urbizu (saxofoia), Gorka Otamendi (bateria) eta Armando Figeroa *Mandi* (perkusioa eta ahotsa). Umore Ona orkestran edo Kaxianorekin ari-tutakoak dira horietako batzuk.

Dantzarako doinuak jorratuko zituen talde bat sortzeko beharra ikusi zutelako elkartu zen boskotea. «Tolosan edota inguruan ez dago gisa honetako talderik, eta beraz, aukera ona izan zitekeela uste genuen. Dantza egiteko espazioak falta dira, batez ere adinekoentzat. Hemen, San Joan jaietan izaten den Mariatxien kontzertuaz gain, ez dute non dantzatu, eta hutsune hori bete nahi dugu».

Elkarrekin musika egin, plaza askotara heldu eta adin talde ezberdinak alaitzea. Helburu horiek dituzte Orkestrina Band Jazpanako taldekideek, eta orain arte, aurreikuspenak bete dituztela aitortu dute. Iurreamendi Zaharren Egoitzan eskaini zuten lehen kontzertua, duela 5 urte. «Saio oso atsegina izan zen, eta bertako egoiliar nahiz langileen erantzuna, oso ona». Geroztik, Lezon, Arbizun, Lazkaon, Donostian edota Aranon eskaini dituzte kontzertuak. «Ikusleak gustura egoten dira betiko melodiak entzuten eta dantzatzen».



Armando Figeroa *Mandi*, Zigor Sagarna, Jon Urbizu, Gorka Otamendi eta Jaione Urdanibia Orkestrina Band Jazpana taldeko kideak, kontzertu batean. ATARIA

OROITZAPENAK BERPIZTEKO

Gainerako musika taldeentzat bezala, talde tolosarrarentzat urte konplexuak izaten ari dira azken biak. Hala ere, badirudi azken hilabeteetan esperantzarako argi apur bat piztu zaiela. «Ez gara geldirik egon eta entseguak egiten nahiz kantuak prestatzen aritu gara. Gainera, kontzertuak eskaini ditugu Tolosako Alondiga kafetegian eta Lazkaon», azaldu dute.

Larunbatean, berriz ariko dira tolosarren aurrean; Lopez Mendizabal Plazan eskainiko dute kontzertua, 12:00etan hasita. Saio berezia izango da, elkartasunez beterikoa. «Buru Bihotzez elkartarekin bat egin dugu, garai guztietako doinuak interpretatuz, musikaz goatzeko eta oroitzapenak berpizteko helburuarekin. Hori dela eta, Alzheimer edota bestelako demen-tziak dituzten herritarrek animatzen ditugu kontzertura».

Tolosako plazara bertaraten direnak gustura egotea eta tarte

gozo bat igarotzea espero dute taldekideek. 30eko eta 40ko hamarkadetan ezagun egin ziren konposizioetan oinarritzen da taldearen errepertorioa, foxtrot-

Buru Bihotzez elkartarekin batera antolatu dute saioa, eta beraz, elkartasuna izango du oinarri

Elkarrekin musika egin, plaza askotara heldu eta adin talde ezberdinak alaitzea dira taldearen asmoak

a, cha-cha-cha, samba, salsa, boleroa, tangoa, bossa nova, baltsa, rocka, pasodoblea eta rantxera generoetatik abiatuz, bereziki jazz ukitua hartzen duen musika instrumentalarekin. Besteak beste, *Tico-Tico*, *El Cumbanchero*, *Historia de un amor*, *Cachito* edo *La Comparsita* abestiak interpretatuko dituzte. «Tartearen, inauterietako doinuak ere en-

tzuteko aukera izango da», aurrreratu dute.

BI HERRIREN TOPAKETA

Behinola, Kubatik Tolosara etorri, eta hemen, bertako musikak maitemindu zuen *Mandi*; baita *Mandik* bertako musika zaleak ere. Musika taldeetan bere lekua erraz topatzen duen horietakoa da. Perkusioa jotzea da bere pasio handienetako bat, baina abestea ere oso gustuko du; ahots indartsua du, gainera. «Nazioarteko abestiak interpretatzen ditugu, eta beraz, oso egoikiak dira niretzako».

Besteak beste, kubatar eta euskal melodia eta erritmoak uztartzen dituen La Jodedera taldean aritzen da. Euskal Herriko kulturak, kubatar kulturak bere herrialdean duen adina garrantzia duela aitortu du. «Tolosan, garrantzia ikaragarria du musikak, herriaren izaeran ezinbestekoa da, eta Kubarekin alderatuz, ikasteko aukera handiagoak daude», nabarmendu du.

FAMILIA-MUSIKA, GAI XOENTZAKO TERAPIA

Buru Bihotzez elkartek, Tolosaldeko familia oro gonbidatu nahi du larunbateko kontzertura. «Dementziak eragindako edonorekin batera, ekimen honekin gozatu dezazuen nahi dugu. Aldi berean, zaintzaile gisa dugun zereginetan laguntzen jarraitzeko, garrantzitsua izan daiteke topo egitea edota elkar ezagutzea», adierazi dute.

Alzheimer edota bestelako demen-tziak dituzten herritarren zaintza arduratzen den elkarteko kideak jakitun dira familia-musikak terapia ez-farmakologiko modura funtzionatu dezakeela. «Gehieng-tan oroitzapenak berpizten ditu gaixoengan, eta, aldi berean, eragin positiboa du haien jokabide-sistemetan eta sistema emozionalean. Kontzertu hau, beraz, aukera ederra izango da guzti horientzat».

Etxetik atera eta elkartzeko duen garrantzia arreta jarritz

Guretzako saioak laster hasiko dituzte eskualdeko bost herritan; elkarrengandik ikasiz, jatorri anitzeko emakumeak biltzeko gune izan nahi dute taldeek

Eneritz Maiz Etxarri

Tolosalde Garatzen garapen agentziako Aniztasuna sailaren barruan sortutako ekimena da Guretzako. Txelo Berra errenteriarra da eskualdeko Guretzako taldeen dinamizatzailea. 2015. urtetik ari da lanean eskualdeko emakumeekin.

Elkartzeko gune bat izatea du helburu Guretzako ekimenak, batik bat, beste herrialdeetatik datozen emakumeentzat. «Ez dituzte ezagutzen hizkuntza, tokiak, ohiturak,... eta ez dute inor ezagutzen. Asko ume txikiekin datoz, horrek duen zailtasun guztiarekin», dio Berrak. Gizonentzat errazagoa dela azaldu du: «Sozializatzeko beste modu bat dute. Ikastaroak egiten dituzte, lanera doaz, lehenago ikasten dute gehienetan hizkuntza... eta emakumeak, aldiz, haurrekin etxean daude, eta etxean gelditzen dira».

Emakumeak elkartu nahi dituzte esperientzia ezberdinak trukatzeko. «Hemen ia hogei urte bizitzen daraman jendearekin topo egin dezakezu, eta ia ez dakite euskara, baina ezta gaztelania ere. Eta ez dute hemengo inor ezagutzen. Justu-justu hiru garreneko bizilaguna», argitu du dinamizatzaileak.

«Oso garrantzitsua iruditzen zait elkartzeko guneak ezartzea eta erraztea», esan du Berrak. Era berean, azpimarratu du udalekin harreman zuzena sortzea ere garrantzitsua dela. Elkartze-



Zizurkil martxan dute emakumeen Guretzako taldea. ATARIA

ko gune izateaz gain, formatzeko baliabideak, hau da, zailtasun argitzeko eta gai ezberdinen gaineko informazioa lortzeko: «Guzti hori jakiteko lekua izan daiteke».

Talde hauetan ere Koronabirusak bere arrastoa utzi du, baina bazkari asko eginak dituztela ekarri du gogora, eta mendi bueltetatik hasi eta bestelako ekimen asko egiten dituztela.

Aipatu moduan, Txelo Berrak dinamizatzen ditu taldeak, eta talde bakoitzak izango duen saioaren nondik norakoak zehazten ditu. Horrez gain, emakumeen beharrak detektatzen ahalegintzen da, eta behar horren gaineko informazioa aurkitzen ere saiatzeko da. Jendearen artean eztabaida sortzea ere bilatzen du. Eta batik bat, behin eta

berri errepikatzen die jendearekin elkartu eta harremanak izateko duen garrantzia: «Publikora atera, eta jendea ezagutzea bezain garrantzitsua da jendeak

«Oso garrantzitsua iruditzen zait elkartzeko guneak ezartzea eta erraztea»

«Jendea ezagutzea bezain garrantzitsua da jendeak beraiek ezagutzea»

**TXELO BERRA
DINAMIZATZAILEA**

beraiek ezagutzea, eta hori behin eta berri errepikatzen dut, batik bat, estereotipoak apurtzeko».

Emakume askok denbora libre askorik ez dutela izaten ere aipa-

tu du, zaintza lanak dituztelako. Latindarren adibidea jarri du: «Emakume latindarrek orokorrean beste irteera edo elkartzeko puntu batzuk izaten dituzte, eta normalean hizkuntza bera ere ez dute izaten zailtasun puntu bat». Guretzako ekimenean, aldiz, «denetarik dago, baina batik bat arabiar jatorriko emakumeak biltzen dira», esan du. Hogeita hamar-berrogei urteren bueltako emakumeak dira taldeetara animatzen direnak, eta egoera ezberdinean dauden emakumeak izan ohi dira.

ETXEZ ETXEZ, ATE JOKA

Herritar guztiak gizarte honetan integratuta ikustea gustatuko litzaioke Berrari, eta hori horrela izan dadin «herritar guztiek» egin behar dutela ahalegina na-

GURETZAKO

Alegia: Hileko azken astearteetan guretzako saioak (irailak 28, urriak 26, azaroak 30, abenduak 14).

10:00etatik 12:00etara, kultur etxean.

Amasa-Villabona: Hileko 3. astelehenean elkartzeko dira (irailak 20, urriak 18, azaroak 15, abenduak 13), 17:00etatik 19:00etara, Subijana Etxean.

Anoeta: Hileko 4. ostiraletan elkartzeko da taldea (irailak 24, urriak 29, azaroak 26, abenduak 17), 15:00etatik 17:00etara, udaletxean.

Irura: Hileko azken ostegunetan (irailak 30, urriak 28, azaroak 25, abenduak 14), 10:00etatik 12:00etara, kultur etxean.

Zizurkil: Hileko azken asteazkenean bilduko dira (irailak 29, urriak 27, azaroak 24, abenduak 15) 10:00etatik 12:00etara, kultur etxean.

barmendu du. Beste behin, jendeak estereotipo asko dituela gogorarazi du, eta horiek apurtu eta benetan ezagutzera animatu ditu eskualdeko herritarrek.

Bestalde, herrietako emakumeak taldera animatzeko era guztietako saiakerak egiten dituztela kontatu du: «Udaletatik gutunak ere bidali izan zaizkie iritsi berriei eta denbora bat bizitzeko daramatenei, saioetara gerturatzeko gonbidapenak luzatuz». Udalak «ahalegin berezia» egiten ari direla argitu du Berrak. Era berean, taldeak osatzea «kosta» egiten dela aitortu du. Taldeak osatu eta desegin izan direla dio. Alegiaren kasuan, urte batzuk eta gero, berriz ere, martxan jarri dutela esan du; aldiz, Anoetan, hasieratik dute martxan.

Doakoak dira saioak, eta emakumeek nahi adina saiotara joateko aukera dute. Izena eman behar da, eta horretarako 646 057 080 telefono zenbakia jarri dute eskura, edota migrazioa@tolosaldea.eus helbide elektronikora mezu bat idatzi dezakete.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



Orain bi urte egin zen azkeneko Berrobira Krosa. IRATI SAIZAR

Martxa onean doa XVIII. Berrobira Krosaren izen ematea

Iaz ezin izan zuten egin, osasun krisialdiarengatik; aurtengoa larunbatean izango da eta helduek 7,5 kilometro egingo dituzte

Imanol Garcia Landa Berrobi

Korrikalariak aukera izango dute larunbat honetan, hilaren 18an, aurtengo Berrobira Krosean parte hartzeko. Hemezortzigarrena izango da, eta martxa onean doa izen ematea, atzo eguerdira bitarte 40 lasterkari dagoeneko izena emanda baitzeuden. «Nahiz iazkoa ezin izan genuen egin, beste urteetan bezainbeste mugimendua dago eta oso kontentu gaude», azaldu du Garazi Goenagak, antolatzailea den Ibin Kirol Klubeko kideak. 50 parte hartzaile inguru izan ohi dira Berrobira krosean, eta baliteke kopuru hori gaintitzea. «Gainera, kontuan izan behar da aurten Behobia-Donostia lasterketa egingo dela, eta Berrobira krosa prestaketa modura erabiltzen dutela», esan du Goenagak.

Iazkoan ikusi zuten osasun egoera zela-eta ezin zela egin. «Aurten ikusten ari garenez krosak eta mendi martxak egiten ari direla, gu ere animatu egin gara aurten», esan du Oihane Vergara Ibin Kirol Klubeko kideak.

Aurtengoan ere ohiko formatua izango du Berrobirak. Lehengo lau probetan gaztetxoek parte hartuko dute: 16:00etan aurrebenjaminen proba hasiko

da, eskolari itzuli bat eginez; 16:10ean benjaminena, eskolari bi itzulirekin; 16:20ean alebina, ermitatik itzuli bat eginez; 16:30ean infantilena, ermitatik bi itzulirekin; eta helduek 17:00etan izango dute proba. 16 urtetik gorakoak sartzen dira helduen mailan, eta ibilbide nagusiari bost tzuli emango dizkionte, guztira 7,5 kilometro eginez.

INTERNETEZ BAKARRIK

Helduen izen emateak internet bidez bideratu dituzte antolatzaileek, «COVID-19a dela eta egunean bertan jende pilaketarik ez izateko», esan du Vergarak. Larunbateko eguerdia bitarte izena eman daiteke eta antolatzaileek korrikalariak animatu dituzte parte hartzera. Izena emateko herrikrosa.eus helbidean sartu behar da eta bertan Berrobira krosa bilatu. Bestalde, jarri dituzten karteletan QR kodea dago eta hori eskaneatuta zuzenean izen ematera joan ahal da. Zortzi euro ordainduko dira aurtengoan.

Haurrek ez dute ordaindu behar eta izena egunean bertan emateko aukera izango dute, horretarako jarriko diren mahaietan. Maila bakoitzak berea izango du eta ilaran metro erdiko tar-

tearekin jarriko dira izena ematerakoan, jende pilaketak ekiditeko.

Sariei dagokionez, helduen mailan lehen postua lortzen duenari 100 euro eta garaikurra emango zaio, eta bigarren zein hirugarrenari garaikurra. Herriko lehen emakumezkoari zein gizonezkoari aparteko saria emango zaio. Haurren mailetan lehenengoari garaikurra emango zaio eta parte hartzaile guztiek domina jasoko dute. Parte hartzaileek merienda jasoko dute, bakoitzak berea, berriz ere jende pilaketak ez gertatzeko.

Antolakuntzari dagokionez, Ibin Kirol Kluban hiru kide daude, eta aurreko lanak beraiek egiten dituzte. Krosaren egunean herritarren laguntza jasotzen dute, bidegurutzeetan trafikoa bideratzeko, haurren izen emateak egiteko, eta merienden prestaketa egiteko. «Horrelako herri txiki batentzako pozgarria da 18. kroseraino iristea. Urtero guregana etortzen diren korrikalari finkoak daude, eta bai parte hartzaile horiei esker eta bai jasotzen dugun herritarren laguntzari esker, krosa aurrera eramateko motibazioa eta indarra dugu», esan dute Ibin Kirol Klubeko kideek.

Eskualdeko pilotaririk ez Caixabank Masterseko finalean

Erredakzioa

Caixabank Masters pilota txapelketan eskualdekoen arteko finala izan zitekeen, baina azkenean ez da horrelakorik izango, Altuna III.ak eta Peña II.ak euren partidak galdu baitzituzten. Larunbatean jokatu zuen Peña II.ak bere partida, eta Rezusta lagun zuela, 22-16 galdu zuten Elezkano II.a eta Mariezkurrena II.aren aurka. Bere aldetik, igandean jokatu zuen Altuna III.ak eta Arangurenekin batera, 7-22 galdu zuten Olaizola II.a eta Zabaletaren aurka.

Bestalde, Baiko enpresak urriaren 1an hasiko den Lau eta Erdiko Txapelketan parte hartuko duten sei pilotarietatik bost aukeratu ditu, eta horietatik bi eskualdekoak dira, Iñaki Artola eta Erik Jaka. Seigarren postua eskuratu dezake Jon Ander Peña tolosarrak, berak eta Agirrek jokatu baitute irailaren 23an izango den atariko. Dagoeneko zerrendan dauden beste hiru pilotariak Bengoetxea VI.a, Laso eta Urrutikoetxea dira.

Larrartek ez du lortu San Mateo Torneoko finalerako txartela

Erredakzioa Bidania-Goiatz

Baños de Rio Tobiako Plazako frontoiak egun historikoa bizi izan zuen igandean, San Mateo 2021 Torneoko lehen partidekin. Miren Larrarte bidaniarrak, Nora Mendizabal bikotekidearekin batera, ezin izan zuen finalerako txartela lortu pilota mistoan, Amaia Aldai eta Andrea Capellanen aurka 22-13 galdu ondoren. Lehen tantoa Larrarte eta Mendizabalentzat izan arren, aurkariak errenta polita hartu zuten laster (6-2), ondo kudeatuz. Amaia Aldaik erraztasun handiz jokatu zuen, aurkariak ondo mugituz eta bikain errematatuz. Nora Mendizabalek ezkerrekin izan zituen arazoei gainera etekina atera zien.

Joxan Tolosa Txapelketako finalistak zehaztuta geratu dira

Erredakzioa Amezketeta

Asteburuan jokatu ziren, Amezketako Larrunarri pilotalekuan, Joxan Tolosa Txapelketako finalerdiak, eta beraz, irailaren 25eko arratsaldean finalak jokatuko dituzten pilotarien izenak zehaztuta geratu dira. Sei pilotarietatik bakarra izango da eskualdekoa, Eneko Labaka albizturtarra. Kadeteetan, Beñat Apezetxea goizuetarra eta Beñat Labaka azpeitiarra ariko dira lehian. Etor-kizuneko mailan, Ekhi Irribarria aramarra eta Erreka elkarterko Oier Ariztegi. Elite mailan, Eneko Labaka eta Exposito astigartarra.

Finalerdietako gau bakoitzean, 150 ikusletik gora izan ziren Larrunarri pilotalekuan. Ondorengoak izan ziren emaitzak: kadeteetan, Apezetxea 22-9 Oier Ibarluzea, eta Eneko Gorostidi 11-22 Beñat Labaka; etorkizunekoetan, Irribarria 22-17 Alberdi, eta Ariztegi 22-19 Amiano; eta elite mailan, Hodei Exposito 22-18 Iñaki Elola, eta Eneko Labaka 22-8 Aztiz.

Xareko irekietan, bikote batzuk finalerdietara sailkatuta

Erredakzioa Irura

Xare irekien bigarren jardunaldian, I. Gazteak Xare Irekian, Halsouet-Vila bikoak 40-21 irabazi zion Zabalegi-Mujikari, eta bi bikoteak finalerdietarako sailkatuta daudela esan daiteke. Mendizabal-Heras bikoak 40-19 Francesena-Bonetbelcheri irabazi zion, eta multzo horretan Mendizabal-Heras eta Maiza-Iturbe finalerdietarako sailkatuta daudela nahiko ziurra da.

III. San Migel Xare Irekiari dagokionez, Larronde-Etxebest bikoak 40-39 irabazi zion Etxeberri-Karrikaburu bikoari. Beraz, multzo horretan, partida horretako irabazleak eta Lopetegi-Petrisans bikoak sailkatu dira finalerdietarako.



ASTEAZKENA, 2021EKO IRAILAK 15
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

ASTEAZKENA 15

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Ohe elastikoak daude jarrita Trianguloa plazan, 10:00etatik 20:00etara.

Erakusketak

Tolosa. losu Lasaren marrazki erakusketa 3 tabernan, hilaren 19a bitarte. Artista legazpiarrak urteetan zehar egin dituen ehunka marrazkiren lagin txiki bat da. Erakusketaren bidez jasotako %20 *We are like you* Liberia osasun mentaleko proiektuarentzat bideratuko da.

Tolosa. Azken Muga erakusketa, Zaratetxan. Urriaren 2ra arte egongo da zabalik, eta ostiraletan, larunbatetan eta igandeetan bisitatu ahaliko da.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Asier Imazek gidatutako magazina: eguraldiaren iragarpena Iker Ibarluzearekin, prentzari begirada, eskualdeko albisteak, kolaboratzaileen tartea...

15:00. Desafioa. Herri kirolen inguruko saioa, Joxe Angel Sarasolarekin.

20:00. (H)ari Naizela. Bertsolaritzaren inguruko saioa, Imanol Artola Felixekin.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!

11:00. Musika zuzenean

11:30. Gaurkoan Tolosalde

17:30. Gaurkoan Tolosalde

22:00. Axari trailen emanaldia

FARMAZIAK

Gaur

VILLABONA. Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias. Kale Berria, 34. 943 69 1130.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Are giro nahasiagoa izango dugu. Goizean goizetik zeruan hodei asko izango

da eta tarteka zaparradak botako ditu, non tarteka ekaitzak jo eta zaparrada gogorak bota ditzakeen, batez ere, arratsaldean. Haizeak goizean hegotik joko du; arratsaldean aldi ipar-mendebaldera aldatu eta zakartu egingo da. Tenperatura dezente jaitsiko da, maximoak 23-24 graduan errendituz.



Bihar. Eguraldi motela izango dugu. Goizean hodei asko agertuko da zeruan eta tarteka zaparradaren bat edo beste

utzi dute. Eguerditik aurrera atertze joera hartuko du eta azken orduetan ostarre txikiren bat edo beste agertuko da. Haizeak ipar/ipar-mendebaldetik joko du eta tenperatura maximoak jaitsi egingo dira, 21-22 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



LOREZ ESTALITAKO LAKUA

Landare bereziak dira nenufarea edo igebelarrak (Nymphaea). Lurrean ez baina, uretan hazten diren landareak dira, normalean laku, urmael edo urtegiatan, eta lurralde bero eta epeletan izaten dira ohikoak. ATARIA-ren Udako Argazki Lehiaketara iritsi den Nenufarea urtegiaren izeneko argazkian lore ederrak dituzten landareez betetako lakua ageri da. Non ateratako argazkia ote da? Hilaren 19ra arteko epea dago parte hartzeko.

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus - 107.6 fm -



*Udako
argazki lehiaketa*



'Opari Bonu Orlegia'

Bi pertsonarentzako bi gaueko egonaldia:
logela eta gosariekin, edo apartamentuan
Nekatur Nekazalturismo Elkartearen eskutik
www.nekatur.net • 943 32 70 90

Epaimahaiaren saria



bi pertsonarentzako otordu bat
Bidania-Goiatzko Bailara jatetxean
iriartejauregia.com - Eliza Bailara, 8.
Bidania-Goiatz. - 943681234

ataria.eus-eko erabiltzaileen saria



Lixoneren bi saski zozkatuko dira.

cosmeticalixone.com
Ibaiondo industrigunea, 11. Aduna. - 943691280
atarikide-en saria